

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

98

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 12koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2012. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko Aginduaren babesean «Agertu» modalitatean emandako diru-laguntzen erabakiaren berri ematen duena.

AURREKO GERTAERAK

1.– 2012ko maiatzaren 11n argitaratu zen EHAAn Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko Agindua, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2012. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

2- 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duenaren 49.2 atalean ezarritakoa jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko erabakiak, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauak besterik esaten ez badute behintzat, EHAAn argitaratu beharko dira.

Horiek horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko Aginduaren babesean «Agertu» modalitatean onuradun suertatu direnen zerrenda eta emandako diru-laguntzak (I. eranskina), ukatu diren eskabideak (II. eranskina) eta artxibatuak (III. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 12a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

2013ko urtarrilaren 7a, astelehena

I. ERANSKINA
«AGERTU» MODALITATEKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea	Proiektua	Laguntza
Amasté Comunicación, S.L.	Colaboradora en Copylove	4.129,34
M3O Scoop Pequeña	Taller-Seminario Soft Power	507,56
Pez Limbo Kultur Elkartea	150 gr Artes Escénicas en Mercado	3.398,50
Orotara		8.035,40

II. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZA ESKABIDE EZEZTATUAK

Eskatzailea	Proiektua	Arrazoia
Kdenetarik Produzioak, S.L.	Nortasuna	Kultur interesari dagokion irizpidean gutxienez 20 puntu ez lortzeagatik (2012ko apirilaren 24ko Aginduaren 45.2 artikulua)
Kdenetarik Produzioak, S.L.	Marrodán, musika ta hitza	Kultur interesari dagokion irizpidean gutxienez 20 puntu ez lortzeagatik (2012ko apirilaren 24ko Aginduaren 45.2 artikulua)

III. ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZA ESKABIDE ARTXIBATUAK

Eskatzailea	Proiektua	Arrazoia
Asoc. Euskal Keramikagile Garaikideak	Zeramika Topaketak Raku	Eskatzailea ez dago alta emanda Jarduera Ekonomikoen Zergaren efigrafe batean